









Hirugarren atal honi lotuta lan pixka bat jarri nahi dizuegu. Aurrekoan bezalaxe, alde batetik, istorioarekin berarekin zerikusia duten ariketa pare bat. Bestetik, hizkuntzaren gainean hausnartzeko aukera ematen duen beste bat.

Istoria behar bezala irakurri baduzu, galdera hauei erantzuteko gauza izango zara, ezta?

1. Norekin bizi da Raoreme?

- a. Gurasoekin
- b. Amarekin
- c. Aitarekin

2. Non bizi da bere aita?

- a. Tepic izeneko herri batean
- b. Huitxoleekin
- c. Nayariten

3. Zergatik?

- a. Aspaldi joan zelako herritik
- b. Herrian bertan lanik ez zegoelako
- c. Amarekin haserretu zelako

4. Nola hartu ditu Raoremeren amak Aritz eta bere lagunak?

- a. Ezusteko handia izan da beretzat
- b. Ez da gehiegi harritu eta bere etxera gonbidatu ditu
- c. Gogo txarrez hartu ditu

5. Eta herriko aztiak?

- a. Oso atsegina izan da beraiekin
- b. Ez die ezer galdetu, ez baitzekien zer esan
- c. Hasieran ondo, baina gero, ez dakigu zergatik, alde egin du

Errepara diezaiogun orain hizkuntzari. Badira testutik atera ditugun bi molde:

Ateri eutsiko ahal dio!  
Ongi etorri!

Testuan bertan nola erabili diren ikusita, jakingo al zenuke bakoitzarekin bina esaldi idazten?

AHAL .....

ONGI ETORRI .....